

HIRIGINTZAREN ARLOKO LIZENTZIAK EMAN ETA KONTROL-JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ERREGULATZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA

9. ordenantza

Oinarria

1. artikulua.- Ordainarazpen hau ezartzen da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehen tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoari jarraikiz eta haren 12. artikuluan jasotako baimenaren babesean.

Zerga-egitatea

2. artikulua.- Zerga-egitatea hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematea da, etxegintzari eta lurzorua erabilerari buruzko egintzak indarra duten hirigintzako eta eraikuntzako araei egokitze aldera.

3. artikulua.- Tasaren eskaera dakarten hirigintzako jarduketek xedetzat dituzte aurretik lizentzia behar duten egintzak eta –lizentziaren beharra aurretiazko komunikazioaren edo erantzukizunpeko adierazpenaren aurkezpenak ordezkatzeko duen kasuetan– geroko kontrola behar dituztenak –Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 189. artikuluan zehaztutakoarekin bat–, eta zehazki honako hauek:

- a) Oin berriko eraikin eta instalazioak eraikitze obrak.
- b) Eraikin eta instalazioak handitze obrak.
- c) Eraikin eta instalazioen egitura edo kanpoko itxura aldatu edo berritze obrak.
- d) Eraikinen barreneko banaketa aldatzen duten obrak, erabilera edozein izanda ere.
- e) Behin-behineko obrak eta erabilerak.
- f) Hirigintzako partzelazioak eta landa-finken bereizketak eta banaketak.
- g) Lur-mugimenduak, hala nola lur-erazketak, hondeaketak eta betelanak, salbu halakoak egin beharreko obra gisa zehaztuta eta programatuta badaude jadanik onetsita dagoen urbanizazio- edo eraikuntza-proiektu baten barrenean.
- h) Oro har, eraikin eta instalazioen lehenbiziko erabilera edo okupazioa, eta haien erabileraren aldaketa.
- i) Eraikinak eraistea, salbu hurre-hurreko aurriari buruzko aitorpena duten kasuetan.
- j) Zorupea ukitzen duten instalazioak.
- k) Arbolak eta zuhaixkak botatzea, halakoak zuhaitz-masa, baso-eremu, arboladi edo parke gisa eratuak badira, salbu nekazaritza-arloko legeek baimentzen dituzten lanen kasuan.
- l) Bide publikotik ikus daitezkeen horma-irudiak jartzea, betiere lokal itxietan ez badaude.
- m) Presak, urmaelak eta defentsa-obrak egin eta ubide publikoak zuzentzea, interes orokorreko obra publikoak ez badira.
- n) Agregakinen erazketa eta harrobien ustiapena, jabari publikoko lurretan egin eta administrazio-esleipena behar izanda ere.
- ñ) Finkak ixtea.

Zerga ordaintzeko betebeharra

4. artikulua.- 1) Honako hauek egonen dira salbuetsirik obretarako lizentziari nahiz erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa behar duten obren geroko kontrolari dagozkien tasak ordaintzetik:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta horrek bere helburuak betetzeko sorturiko entitate juridikoak.
- b) Iruñeko Udala partaide duten mankomunitateak eta udal-elkarteak, bai eta horiek beren helburuak betetzeko sorturiko entitate juridikoak ere.

2) Tasa hauek direla medio Telefónica de España, SAU enpresari egokitu lekiokoen ordainketa dirutan egin beharreko urteko ordainaz ordezkatzeko da, Nafarroako Foru Erkidegoan Espainiako Telefono Konpainia Nazionalak behar duen tributu-araubidea ezarri zuen abenduaren 29ko 11/1987 Foru Legeak xedatutakoarekin bat.

5. artikulua.- Tasa lizentzia eskatzean edo, bestela, aurretiazko komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztean sortuko da.

Ez da izanen tasarik ordaintzeko betebeharririk, interesdunek beren eskaerari uko egiten badiote lizentzia emateko Udalak erabakia hartu edo, lizentzia jakinarazien kasuan, adostasuna emateko eginbidea gauzatu baino lehen. Halaber, ez da ordaindu behar, baldin eta obrak egiteari uko egiten bazaio jardueraren geroko kontrolari buruzko udal-ebazpena eman baino lehen.

Subjektu pasiboa

6. artikulua.- Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak zein nortasun juridikorik izan gabe batasun ekonomikoa edo ondare banandua osatzen duten entitateak, baldin eta hirigintzako jarduketak egiteko eskatzen badute, edo egin dutela aitortzen edo jakinarazten, edo egindako hirigintzako jarduketan edo emandako lizentzien onura edo eragina bereganatzen badute.

Zoruari eta hiri-antolamenduari buruzko arauetan hirigintzako lizentziak emateagatik ezartzen diren tasetan, eraikitzaileak eta obra-kontratatistak izanen dira zergadunen ordezkokoak.

Tarifak eta karga-tasak

7. artikulua.- Aplikatu beharreko tarifak, tasak eta karga-oinarriak Ordenantza honen eranskinean daude jasota.

Kudeaketa-arauak

8. artikulua.- 1) Lizentziak jasotzeagatik eta hirigintza-jarduketak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, hasiera batez, autolikidazio-araubidepean galdutako dira, izapide laburreko araubidearen eta lizentzia jakinarazien araubide bereziaren menpeko obra-lizentzien eta erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea beharrezkoa duten obren kasuan. Gainerako kasuetan, tributu-administrazioak dagokien behin-behineko likidazioa eginen du. 1.4) epigrafean araututako obretarako lizentzien kasuan, 10. artikuluan ezarritakoari eginen zaio men.

2) Autolikidazio-araubidea aplikagarria den kasuetan, subjektu pasiboek derrigorrezko izanen dute autolikidazioa egitea kasuan kasuko tasak direla medio, Udal Administrazioak emanen dien inprimaketan. Betebehar hori ez betetzea tributu-arloko arau-hauste zehagarria da, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalaren IV. kapituluan xedatutakoarekin bat.

Izapide laburreko araubidearen eta lizentzia jakinarazien araubide bereziaren menpeko lizentzien kasuan, eskatzaileak, lizentzia-eskabidearekin batera, autolikidazio-agiria –behar bezala beterik– eta ordainketaren egiaztagiria aurkeztuko ditu, edo, bestela, ordainketa-epea luzatzeko eskabidea, behar bezala erregistraturik. Autolikidazioa ordaintzeak ez dakar berekin lizentzia ematea, eta ordaindu izanaren gaineko ziurtagiria erretiratu beharra dago, behin izapidetu eta gero, lizentzia kudeatzen duen bulegotik.

Erantzukizunpeko adierazpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea beharrezkoa duten obren kasuan, autolikidazio-agiria –behar bezala beterik– eta ordainagiria aurkeztu beharko dira, aurretiazko komunikazioarekin edo erantzukizunpeko adierazpenarekin batera, edo, bestela, ordainketa-epea luzatzeko eskabidea, behar bezala erregistraturik.

3) Subjektu pasiboek aurkeztutako hasierako autolikidazioaren edo tributu-administrazioak onetsitako hasierako likidazioaren ordainketa behin-behinekoa izanen da, eta behin betiko ordaindu beharreko kopuruaren konturakoa.

9. artikulua.- 1) Tasak tarifa finakoak ez diren kasuetan, hasierako likidazioaren edo autolikidazioaren zerga-oinarria interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera zedarritutako da, betiere aurrekontu horrek kasuan kasuko elkargo ofizialaren oniritzia badu, halakorik nahitaezko baldintza den kasuetan. Bestela, udal-teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, proiektuaren kostu zenbatetsian oinarrituta.

2) Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko proiektua aldatzen bada, eta horren aurrekontuak gora egiten badu, behin Udal Administrazioak aldagata onartu eta gero, autolikidazio osagarria onetsiko da, hasierako aurrekontuaren eta aldagataren ondoriozkoaren artean dagoen aldearen gainean.

10. artikulua.- 1) Behin eraikuntzak, instalazioak eta obrak amaitu eta benetan egin direnak ikusita, hiru hilabeteko gehieneko epean –haien amaiera edo behin-behineko onarpenetik aurrera–, tributu-betebeharpekoek deklarazio bat aurkeztuko dute inguruabar hori azalduz eta kasuan kasuko eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako eta egiazko kostua adieraziz, eta, harekin batera, obraren zuzendari fakultatiboak haren gainean emandako egiaztagiria –dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia– eta, halakorik behar izatera, aipatu kostua justifikatzen duten agiriak (fakturak edo haien tankerakoak), betiere Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren 12.3. artikuluekin bat. Irekitzeko lizentziarik, erabilera aldatzekorik, lehen erabilerakorik edo beste zenbait lizentzia izapidetu behar izanez gero, agiri horiek kasuan kasuko lizentziarako eskaerarekin batera aurkezten ahalko dira.

2) Behin benetako kostua ezaguturik, eta administrazioak egitekoa den egiaztapena eginda, tributu-administrazioak behin betiko likidazioa eginen du, subjektu pasiboak hasieran lizentzia bakoitzeko autolikidatutako kuotarekin dagoen diferentzia positibo edo negatiboaren gainean, halako eran non, behar izatera, subjektu pasiboari behar den kopurua galdatu edo itzuliko baitaia.

11. artikulua.- 1) Udal Administrazioak egiaztatuko du autolikidazioak Ordenantza honetako arauak zuzen aplikaturik egin direla, eta, horrenbestez, lortutako oinarriak eta kuotak arau horiek aplikatuta lortuak direla.

2) Baldin eta Udal Administrazioa autolikidazioekin ados ez badago, likidazioak eginen ditu, gaizki aplikatutako kontzeptuak edo datuak eta errakuntza aritmetikoak zuzenduta, berandutze-interesak kalkulatu

ditu eta, behar izatera, behar diren zehapenak ezarriko. Halaber, likidazioa ere egingen du, subjektu pasiboak deklaratu gabe utzitako zerga-egitateen gainean.

Arau-hausteak eta zehapenak

12. artikulua.- Arau-hausteei eta zehapenei dagokienez, Kudeaketarako, Diru-bilketarako eta Ikuskapenerako Ordenantza Fiskalean ezarritakoari egingen zaio men.

TARIFA-ERANSKINA

I. EPIGRAFEA.- LURRALDEAREN ANTOLAMENDUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO FORU LEGEAREN TESTU BATERATUAREN (1/2017 LEGEGINTZAKO FORU DEKRETUA) 190. ARTIKULUAREN BABESEAN EMANDAKO LIZENTZIAK:	
I.1) Partzelazio-lizentziak:	
- Lizentzia bakoitza izapidetu eta ebazteagatik	128,30 euro
I.2) Eraikinak Birgaitzeko Iruñeko Udalaren Laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren babespeko obretarako lizentziak:	
- Lizentzia bakoitza izapidetu eta ebazteagatik, honako tasa hauek sortuko dira:	45,35 euro
I.3) Izapide laburreko obra-lizentziak eta lizentzia jakinaraziak:	
- Izapide laburreko lizentzia bakoitza izapidetu eta ebazteagatik, honako tasa hauek sortuko dira:	120,35 euro
- Lizentzia jakinarazi bakoitza berrikusi eta emateagatik, honako tasa hauek sortuko dira:	6,85 euro
I.4) Eraikitzeko, handitzeko, eraberritzeko, eraisteko, lur-mugimenduak egiteko, zuhaitzak mozteko, kartelak jartzeko eta lizentzia behar duten gainerako egintzetarako lizentziak, aurreko ataletan jaso ez direnak:	
- Tasa honen kuota 9. eta 10. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz zehaztuko den zerga-oinarriari honako karga-tasa hau aplikatuz kalkulatu da:	% 0,50
Gutxienez:	120,35 euro
I.5) Lizentziak, eraikinak edo instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeagatik:	
- Eraikinen lehen erabilerarako edo okupaziorako lizentzia bakoitza izapidetu eta ebazteagatik	820,75 euro
- Lehen erabilerarako lizentzia duten eraikinetan etxebizitzaren lehen erabilerarako edo okupaziorako lizentzia partzialeko espediente bakoitza izapidetu eta ebazteagatik, etxebizitza bakoitzeko	81,60 euro
- Zaharberritzeko Laguntzen Udal Ordenantzari atxikitako eraikin osoak edo banakako eraikinen lehen erabilerarako edo okupaziorako lizentzia bakoitza izapidetu eta ebazteagatik	11,00 euro
I.6) Eraikinen erabilera alde batez edo osoki aldatzeko lizentziak:	
- Lizentzia bakoitza izapidetu eta ebazteagatik, honako tasa hauek sortuko dira:	618,75 euro
II. EPIGRAFEA.- OBREN ONDORENGO KONTROLARENGATIK, LIZENTZIAREN BEHARRA ALDEZ AURREKO JAKINARAZPENAREN EDO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN AURKEZPENAK ORDEZKATZEN DUEN KASUETAN:	
1.4. epigrafearen tarifa aplikatu da.	